Paris'en Uztaillaren lenengoan.

Lafite aphez jaunari
Ustaritzen.

Agur:

Zuri gagoz dagokizulako emen bialtzen dizut Guatemala'tik Ibiñagabeitiak Kongresurako igorri didan lana.

Gure saillean bilduko diranentzat eta lanik bialdu dizkigunentzat orri batzuetan zertzaz ariko geran jakin dezaten "sommaire" batzuek egin nai nituzke. ¿Ez al diazu zuk bialduko zure ikasbideen laburpen txiki-txiki bat? Esan nai det: kapituluetan zer aitu nai dezun. Besterik ez

Orain arte, nik bost lan artu ditut: Ibiñagabeitia'ren ori, Altube, Ametzaga, Instituto Americano de Estudios vascos, eta nerea bat. Zertaz ari diran beste egun batean agertuko dizut.

Onenbestekin, agur. Onik izan zaitezela

Leizaola'tar Jose M.ª